

4. DIRU-ITURRIAK

Diru sarrerak edo etekinak edukitzeko planteatuko dugun modua honako hau da: Aplikazioa aldi gutxietan erabiliko denez, SAAS sukripzio modeloa alde batera utziko dugu. Horren orde, ordainketa bakarreko diru sarrerak izango dira nagusi, aplikazioa instalatzerakoan kuotak sahietsiz. Modu honetan, jendea aske sartzeko aukera izango du, eta gure zerbitzuak kontratatzeke unean egingo dugu kobrantza.

Gainera, hartzaileak gazteak direnez, hauen ekonomia-maila eskas eta desegonkorra kontuan hartuz, gure zerbitzuak kontratatzearen kostua txikia izango da. Zehazki, prezio finkoa 7.99€koa izango da zerbitzuak kontratatzen diren aldi bakoitzeko.

Aitzitik, dirua lortzeko beste iturri bat aplikazio barneko publizitatea izango da. Hots, zenbait enpresei haien iragarkiak gure aplikazioaren bitartez jartzeko aukera emango dugu, espreski gazteei zuzendutako publizitatea.

Gainera, enpresaren garapen nabarmena badago zenbait aktiboen salmenta dugu kontuan, gehiago hedatu dadin.

Amaitzeko, pizgarri moduan, prezioak dinamizatuko ditugu; aplikaziora inbitatutako lagun bakoitzeko 1€ merketuko zaio prezioa pertsonari, 3€ merketu arte gehienez. Hau lortzeko, Facebook kontua beharko da.

Gainera, web-orri batean ari gara lanean, mugikorrarekin moldatzeko arazoak dituzten pertsonentzat.